gipuzkoan gazte direnentzat

# gipuzkoan gazte.eus

## Prentsako lan-eskaintzen dosierra

## Dossier de ofertas de empleo de prensa



# Empleo
## 12 al 14

### 12 Ofertas

**CLÍNICA** dental Aldaz precisa auxiliar de clínica para sus consultas en Lasarte-Oria, Elgoibar y Tolosa. Horario a convenir. Interesados enviar C.V. a Aldaz Lasarte, C/ Ola nº 10 bajo, 20160 Lasarte-Oria o enviar mail a rrhh@dentalaldaz.com". También pueden contactar a través de la página web: www.dentalaldaz.com.

**ESTETICIENNE OFICIALA** para Beasain. 688642002

**MECÁNICO** para vehículo industrial. Taller mecánico multimarca camiones. LASARTE. 943361857- 943361858.

**OPORTUNIDAD** vendo negocio de máquinas expendedoras por no poder atender. 635395255

EL CORREO

**PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOAK**, https://puntabegona.getxo.eus, Getxoko Udalarena dena eta Punta Begoñako Galerien Eraikina berreskuratzeko eta bere balioa nabarmentzeko sortua, honako lanpostua bete behar du:

# KUDEATZAILEA

**Baldintzak:**

- Arkitekturako goi mailako tituluduna edo Arkitekturako Gradua gehi gaitasun Masterra.
- Euskara jakitea, behintzat C1 maila egiaztatua.
- Ingelesa jakitea, behintzat C1 maila egiaztatua.
- Gutxienez sei urteko esperientzia egiaztatua arkitektu lanpostuan, ejekuzio proiektuen garapenean eta hauen obra-zuzendaritzan zaharberritze edota berritze lanetan.
- Gutxienez lau urteko esperientzia egiaztatua izatea jendearentzat irekitako ondare eraikia zaharberritzeko proiektuen koordinazio postuan.

**Merezimenduak:**

- Ondare eraikiaren kudeaketa integraleko masterra.
- Berariazko prestakuntza kultur kudeaketan.
- Berariazko prestakuntza ukiezinen finantza-kudeaketan.
- Prestakuntza hizkuntza inklusiboan eta berdintasunerako sentsibilizazioan.
- Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuen ezagutza egiaztatua C1 mailan.
- Informatika, erabiltzailearena baino goragoko mailan.
- Eraikitako ondarea zabaltzeko prestakuntza eta dibulgazio jarduerak diseinatzen, koordinatzen eta zuzentzen esperientzia egiaztatua izatea.

Hautapen prozesua bakarka egingo da eta hasierako elkarrizketan datuak gehituko dira.
Interesdunek **www.seleccionformacion.com** webgunearen bidez erantzun dezakete, **11260** erreferentzian.

**LEHEN HAUTAKETAN AUKERATUTAKO HAUTAGAIEI BAKARRIK ERANTZUNGO ZAIE 30 EGUNEKO EPEAN.**
**Datuak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera erabiliko dira eta Selección & Formación-en fitxategian gordeko dira.**

**LA FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA**, https://puntabegona.getxo.eus, perteneciente al Ayuntamiento de Getxo y creada al objeto de recuperar y poner en valor el Edificio de las Galerías de Punta Begoña, precisa cubrir el puesto de:

# GERENTE

**Requisitos:**

- Titulado/a superior en Arquitectura o Grado en Arquitectura más Master habilitante.
- Conocimiento de euskera acreditado mínimo C1.
- Conocimiento de inglés acreditado mínimo C1.
- Al menos seis años de experiencia acreditada en puesto de arquitecto/a para desarrollo de proyectos de ejecución y su dirección de obra en intervenciones de rehabilitación y/o reforma.
- Al menos cuatro años de experiencia acreditada en puesto de coordinación en proyectos de restauración del patrimonio construido abiertos al público. Trato habitual con organismos públicos en el desarrollo de estas funciones.

**Méritos:**

- Master en gestión integral del patrimonio construido.
- Formación específica en gestión cultural.
- Formación específica en gestión financiera de intangibles.
- Formación en lenguaje inclusivo y sensibilización para la igualdad.
- Conocimiento acreditado a nivel C1 de otros idiomas comunitarios.
- Informática a nivel superior a usuario.
- Experiencia demostrable en diseño, coordinación y dirección de actividades formativas y divulgativas para la difusión del patrimonio construido.

El proceso de selección se realizará de forma individual y en entrevista inicial se ampliarán datos.
Interesados/as respondan a través de la Web **www.seleccionformacion.com**, en la Referencia **11260**

**SE CONTESTARAN UNICAMENTE LAS CANDIDATURAS PRESELECCIONADAS EN UN PLAZO MAXIMO DE 30 DIAS.**
**Se tratarán los datos de acuerdo a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, incluyéndolos en el fichero propiedad de Selección & Formación.**

## EMPLEO Y FORMACION

OFRECEN

**EMPRESA METALÚRGICA DE ZARAGOZA DESEA AMPLIAR SU PROGRAMA DE FABRICACIÓN**

Si tienes un proyecto o idea y capacidad para desarrollarlo.

Te ofrecemos:

- Medios materiales, humanos y económicos.
- Participación en los resultados.
- Sin variar de residencia, si así lo deseas.
- Incluso si eres prejubilado o jubilado.
- Se estudiará cualquier otra situación.

Enviar proyecto/idea e historial profesional a

nuevosproyectostm@gmail.com

o

Apartado de Correos 214
50080 Zaragoza

**ESTANCO** SE VENDE

Margen Derecha. Apartado 789 - 48080 Bilbao
o email: zarragajesus508@gmail.com

Empresa de multiservicios precisa

**FONTANERO** Oficial de Primera

Para Bizkaia. Imprescindible experiencia.
Autónomo o para incorporación en plantilla.
Interesados llamar a los teléfonos
94 445 50 20 / 605 70 84 98

**INVERSORES**

Mínimo 50.000€
Recuperación inversión anual
+12% interés beneficio.
Con posiblidad puesto de trabajo.

# berria

# BERRIA Taldearen LAN ESKAINTZAK

**BERRIA Taldea**k honako lanpostu hauek bete behar ditu, aurrerantzean ere kalitatezko informazioa emateko eta esku artean dituen erronka eta proiektu estrategikoei erantzuteko.

## ERREDAKZIOKO IDAZKARIA (Erref.: 21-ID)

**BERRIA egunkariak** erredakzioko idazkari eta lantaldearen administrari lanpostua bete behar du. Pertsona antolatu eta ekimendun bat bilatzen dugu, taldean lan egiten dakiena eta pertsonekin tratua edukitzeko erraztasuna duena.

**Funtzioak:**

- Erredakzioko lantaldearen kudeaketa eta antolaketa; egutegiak, lan poltsa, kontratuak, langileen intzidentziak.
- Erredakzioko sail desberdinetako kolaboratzaile sarearen kudeaketa.
- Erredakzioko praktika eta beken kudeaketa.
- Idazkaritza lanak; materiala, erosketak, bidaiak, txostenak.

**Eskatzen da**

- Enpresa eta administrazio arloko unibertsitate mailako edo goi mailako lanbide heziketako ikasketak, Idazkaritza ikasketak, edo antzekoak.
- Administrazio lanen eta giza baliabideen kudeaketari buruzko ezagutza eta esperientzia.
- Ofimatika programen ezagutza.
- Euskaraz ondo jakin (gutxienez EGA maila) eta ondo komunikatzea.
- Euskalgintzan nahiz hedabideetan izandako lan ibilbidea baloratuko da.

**Eskaintzen da:**

- Berehala lanean hastea.
- Lanaldi osoko lan kontratu iraunkorra.
- Lantokia Andoainen, BERRIAren egoitza nagusian.

Interesa duenak bidal dezala curriculuma 2021eko otsailaren 1a baino lehen, **'21-ID'** erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus

## WEB GARATZAILEA (Erref.: 21-GA)

**BERRIA egunkari multimediak** behar dituen web garapeneko lanetan ariko da pertsona hori, garatzaile gisa, hainbat proiektu aurrera eramateko beharrezkoa den web produktuen diseinuaz eta exekuzioaz arduratuz, garatzaile taldearen barruan. Talde lanerako eta diziplinarteko lankidetzarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabiltza.

**Eskatzen da:**

- Esperientzia web garapenean. Batez ere HTML5, CSS3, PHP eta Javascript.
- PHPn eskarmentua: zehazki, Symfony, Laravel, Zend eta halako framework-en ezagutza baloratuko da.
- MySQL datu baseen kudeaketan trebetasuna.
- Responsive web garapenean eskarmentua.
- Weberako diseinuan eta maketazioan esperientzia.
- Web irisgarritasun eta erabilgarritasun printzipioen ezagutza.
- SASS eta LESS lengoaien ezagutza baloratuko da.
- Datuen bisualizaziorako liburutegien ezagutza baloratuko da: Leaflet, DataMaps, Flourish, HighCharts...
- Hedabideekin lotutako web garapenaren inguruko esperientzia bereziki baloratuko da.
- Talde lanerako eta diziplinarteko lankidetzarako gaitasuna beharrezkoa da.
- Euskara maila ona (gutxienez EGA maila).

**Eskaintzen da:**

- Berehala lanean hastea.
- Lanaldi osoko iraupen luzeko kontratua.
- Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidal dezala curriculuma 2021eko otsailaren 1a baino lehen, **'21-GA'** erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus

## SUSTAPENERAKO ETA KANPO HARREMANETARAKO TEKNIKARIA (Erref.: 21-KH)

Pertsona hori **BERRIA**ren kanpo harremanez arduratuko da, baita markaren presentziarako estrategiak eta ekintzak diseinatu eta gauzatzeaz ere. Marketin lantaldearen barruan lan egingo du, marketin plan estrategikoan jasotako helburuak lortzera bideratuta. Sormena, ekimena, eta harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna dituen pertsona baten bila gabiltza.

**Eskatzen da:**

- Unibertsitate mailako ikasketak: Komunikazioa eta Marketina, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Administrazio eta Enpresa Zuzendaritza edo antzeko ikasketak.
- Kanpo harremanen eta sustapen arloen ezagutza; horiek lantzeko plangintza eta kudeaketan esperientzia.
- Harremanetarako eta ahozko nahiz idatzizko komunikaziorako trebetasuna.
- Euskara maila ona (gutxienez EGA maila).

**Eskaintzen da:**

- Berehala lanean hastea.
- Lanaldi osoko iraupen luzeko kontratua.
- Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidal dezala curriculuma 2021eko otsailaren 1a baino lehen, **'21-KH'** erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus

## INPRIMAKETA-AURREKO LANGILEA (Erref.: 2021-ZT)

**BERRIA egunkariak** inprimaketa-aurreko langile bat behar du: egunkariaren edizio prozesuaren itxiera teknikoaz arduratuko den pertsona baten bila gabiltza.

**Eskatzen da:**

- Diseinu grafikoaren arloko prestakuntza.
- Inprimaketa-aurreko ezagutzak.
- Argazkien tratamenduan aurrez aritu izana.
- Quark eta Photoshop programak menperatzea.
- Illustrator programaren ezagutza baloratuko da.

**Eskaintzen da:**

- Lanaldi osoko postua, arratsaldeko lan txandan.
- Kontratu iraunkorra.
- Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidal dezala curriculuma otsailaren 1a baino lehen, **'2021-ZT'** erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus.

## ZUZENTZAILE-ITZULTZAILE PRAKTIKALDIA (Erref.: ZU-IT_2021)

Zuzenketan eta itzulpengintzan trebatzeko **lanpostu bat** eskaintzen du **BERRIA**k 2021. urterako.

**Eskaintzen da:**

- Urtebeterako praktiketako lan kontratua (beste urtebetez luzatzeko aukera).
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian lan egitea.
- BERRIA egunkariko euskara sailean zuzenketa eta itzulpengintzako prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzeko eta ibilbide profesionala arlo horretan bideratzeko aukera.

**Bete beharreko baldintzak:**

- Zuzenketa eta itzulpengintza arloan lan egiteko oinarrizko ezagutzak.
- Euskara maila ona.
- Unibertsitate titulua edo lanbide heziketako titulua.

**Kontuan hartuko da:**

- Hizkuntzak jakitea, haietatik euskaratzeko moduan (bereziki gaztelania eta ingelesa).

Deialdira aurkezteko epea 2021-02-01 artekoa izango da. Interesa duenak bidal dezala curriculuma gizabaliabideak@berriataldea.eus helbide elektronikora, **'ZU-IT_2021'** erreferentzia zehaztuta.

Informazio guztia: **Berria.eus/lan-eskaintzak/**